

Arantzazuko Olentzero



Gabon-batzeiak antxiñakuaq dittugu Oñatin, kaliañ nahiz auzuetan. Baiña bada bat, hain zaharra izan ez arren, sail honetara ekarteko adina meritu egin dauena: Arantzazun abenduaren 24ko bazkalostian ostaturik ostatu ibiltten dana, hain zuzen be. Orain dala hogeita hamarren bat urte hasi zan martxan, transiziño garaixan, eta harrezkero ezta kalerik egin. Arantzazuko kolegixoko hainbat irakasle animau ziran horretara, auzoko gazte batzuen laguntzairekin.

Arantzazuko gabon-erronda hau espezialtxua sortu zan. Ez eukan betiko jaixotza edo belenik, **Olentzero** ikazkiñaren irudixa baiño. Gabon-kantak be berezi samarrak ziran: *Birjiña maite*, *Horra Mari Domingi*, *Haur eder baten bila*, *Hator, hator mutil etxera*, *Mesias sarritan* edota *Ai hau gauaren zoragarria* tradizionalekin batera tankera barriko beste batzuk be kantaiten ziran: esaterako, ja klasikuak bihurtu diran *Gabon pozarren gatoz*, *Gabon dut anuntzio*, *Agur Maria Belengo*, *Gabonak datoz*, *Eta Gabonak*, *zelofan*, *paper de plata* edo *Behean simaurra eta goian amerauna*; *Alaken eta Tott*, *tiibiribirott* ahaztu barik. Gaiñera, azkenaldi honetan hemen nahiz munduan pasau barri diran gertakarixai errepasso kritikua egiten xate urtero, Xabier Leteren habaneraren doinuarekin moldautako bertsuetan.

Kantu barri gehixenon letragillia kolegixoko maixu eta poeta ezaguna izan zan: **Bitoriano Gandiaga** idazle haundixa. Musikagillia, berriz, beste maixu bat: **Pello Zabala** musikologo eta organistia. Hasiara batian, ostatuetatik aparte, Gomistegira be faten zan, Olentzero *Landroverraren* gaiñian hartuta. Baiña iragoko urtietan hau izaten da arratsalde horretako jiria: bazkaldu eta gero, goiz samar, entsaio txiki bat egitten da Milikuenian; eta ondoren auzoko taberna-jatetxe guztietan egitten da sartu-urten bat, kantaldixa egiñaz: **Goiko Benta**, **Sindika**, **Hospederixia**, **Zelai zabal**, akaberia **Milikuenian** emuteko. Arantzazuar eta kaletarren artian hogeita hamar edo berrogei kantari inguruko taldia alkarketan da urtero. Ostatu danetan, jakiña, gabon-sarixa jasoten daue kantarixok.

Sindikatik beherakuan atarata dagueñ argazki honetan ezaguketako moduan agiri diranak honeitxek dittuzue ezkerretik eskumara: **Ander Milikua** eta **Manex Madina** mutikotxuak; **Joxe Iñazio Markuleta**, **Marku**; **Anjel Mari Milikua** andera; **Olentzero** ikazkiña; eta Arantzazuko hiru frantziskotar: **Xebero Zinkunegi** panderojoillia, **Pello Zabala** soifnujoillia, eta **Bitoriano Gandiaga** ibilladi guztiañen zuzendarixa. Fotografixiak 17-18 bat urte eukiko dittu.

J. E.

Argazkixa Mari Tere Milikuaq atararakua da. Argibidiak, berriz, Anjel Mari eta Arantxa Milikuaq samurtu doskue. Eskerrik asko dano!

Oharra: Orain hurrenguan agertu zan alemanen fotografixan zuzenketa bat egin biharrian gagoz: erdiko illaran eskumatik hirugarrena ezta Ugaztegiro Juana, Araotz-urriti Goitiko Florentina Agirre baiño. Hau Edurneren iñudia izan zan, Pedro Gundelen alabarik gaztietanarena eta aurrekuan aittatu ezkebena. Informaziño hau Rafael Kernstock, Migel Mari Guridi eta Mjla Altuberi zor dostegu.